

## V - BESTELAKOAK

### SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

#### **Exekuzio fasean dauden lanen segurtasuna eta osasuna koordinatzeko esparru-akordioa gauzatzeko lizitazioa**

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Katedrala Fundazioa

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: Santa Maria Katedrala Fundazioa sustatzailea den zaharberritzelanen barruan, exekuzio fasean dauden lanen segurtasuna eta Osasuna koordinatzeko zerbitzua emateko enpresari bakar batekin esparru akordioa.

B) Iraupena: urte bat, urtero luzagarria beste urte batez, gehienez.

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era

A) Izapidea: presakoa

B) Prozedura: irekia

C) Era : ekonomikoki onena den eskaintza

4. Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa::

Aurrekontu mota: estimatutako gehieneko, lizitatuak orientatzeko da eta ez die aurrekontu gastuei inolako konpromisorik eragingo.

Esparru- akordioaren barruan egingo diren lanen bolumena, gutxi gorabehera, 15.000,00 eurokoa izango da. Horri ehuneko 21eko BEZa gehituko zaio. Urtebeteko luzapenarekin akordatu ezgero, bi urteko esparru- akordioaren aurrekontuaren oinarria 30.000,00 eurokoa izango da eta horri ehuneko 21eko BEZa gehituko zaio.

5. Bermeak :

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: lizitazioaren aurrekontu-oinarriaren ehuneko 5 (BEZ gabe).

6. Kontratataren berariazko baldintzak:

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa: Ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

Ez dago sailkatu beharrik.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoa.

Tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kaleko 95. zenbakia

Telefonoa eta faxa: 945122160

Edo Kontratugilearen profilean: [www.catedralvitoria.com](http://www.catedralvitoria.com)

8. Eskaintzen aurkezpenak:

A) Epea: ALHAOn lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik kontatzen hasi eta hurrengo 8 egun naturaleko epea izango da. Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratu- en Lege Orokorraren Arautegiko 80. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Ikusi ezaugarrien taula eta orri administratiboak eta teknikoak

C) Aurkezteko tokia: Fundazioaren bulegoan, lanegunetan, 9.00etatik - 14: 00ak arte. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baldiodunera atzeratuko litzateke.

D) Aldaerak onartzen dira: ez

9. Eskaintzak irekitzea:

Proposamenak aurkezteko azken eguna igaro eta lau egun baldiodunera. "A" gutun-azala irekiko da, 13: 00etan Santa Maria Katedrala Fundazioaren Bulegoan

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 12a

*Presidentea*

**JAVIER DE ANDRÉS GUERRA**